

www.noaia.com

# Noaia !!



Liburu berria plazaratu  
du Yolanda Arrietak



Bost hautesleku  
jarriko dira igandean

**GAZTAINAK**

**SARDIN ZAHARRAK**

**BASERRITAR JAUNTZIAK**

**DANBOLINA**

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASERRIA HERRIA  
BIZIRIK

ALKARTASUNA

Usurbilgo baserritarren Kooperatiba alkartasuna@usurbil.com, Atallu Industrialdea 6-26, 943 36 11 14

**pikabea** Aseguru Artekaritza

**GESTORITZA ZERBITZUA JARRI DUGU!**  
Autoen esku-aldaketak, Garraio-txartelak...

**SEGURO MOTA GUZTIAK, ESKATU AURREKONTUA!**

- autoak ·etxeak ·bizi-aseguruak ·komunitateak ·merkataritza-dendak
- enpresak ·pentsio planak ·istripu aseguruak ·ontzi aseguruak

Telf: 943 37 11 18 telf/fax: 943 37 19 97 Plaza Uzturre, 8 Lasarte-Oria [pikabea@infonegocio.com](mailto:pikabea@infonegocio.com) J-0078EUS

Albistea iruditan!

## Larunbat honetan ere, auzolana Zubietan

**A**spaldiko ohitura ei da, Zubietan bide bazterrak auzolanean garbitzea. Azken uholdeak eta gero, Zubietako erribera garbitzen ibili ziren auzolanean. Unai Agirrek adierazi digunez, "Zubietako Herri Batzarrak eta Usurbilgo Udalak deituta, 25 lagun bildu ginen goizeko 8:00etan, eta ibai bazterrak garbitzen eta txukuntzen ibili ginen, Aliriko zubitik Irubita baserriraino, azken hau urak hartu zuena. Giro alaietan, traktoreak lagunduta, bakarrik gelditu ginen bertan baratza zutenak pintxo eta sagardoa eskaini zigutenean. Lan handia (ikaragarria!) dago, eta hurrengo larunbatean, goizeko 8:00etan berriz dugu hitzordua Irubita baserrian".



AURREKO LARUNBATEAN 25 LAGUN ELKARTU ZIREN ZUBIETAN.

## Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	DYA	943 464 622
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Udaltzaingoa	943 361 112	Etumeta AEK Euskaltegia	943 372 001	Emergentziak	112
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Kalezar Egunekeo Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Bake Epaitegia	943 372 336	Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Udarregi Ikastola	943 361 216	Taxia (Angel)	607 928 770	Banco Popular Español	943 370 411
Haur Eskola	943 374 061	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466	BBVA	943 377 155
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Eusko Tren	943 470 976	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Hastapen tailerrak	943 360 465	Anbulategia	943 362 013	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
KZgunea	943 570 999	Oa botika	943 376 076	Telefonica	1004
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Iturralde botika	943 363 395	Euskaltel	900 840 840

**Noaua!**

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) / [www.noaua.com](http://www.noaua.com)

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Aizpea Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, [publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

Erredakzio kontseilua, [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com): Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Aizpea Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola, Ainara Arnaiz.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Maddi Zaldua, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

## Idatzita utzi dut

Unibertsitatean eman nuen eguna. Gaizki gogoratzen ez badut, 16:00ak inguruan asko harritu gintuen albiste bat eman ziguten: Gadafi hil zuten. Egunkari digitaletan bilatzeari ekin, eta hilketaren argazki krudel eta gordin haiek ziren ikusgai nonahi. Egia esan, bi egunkaritan soilik begiratu nuen nik, odolez tindatutako argazki haiek ez baitzidaten inolako atseginik sortu.

Klasekide batek esandakoak urduri jarri ninduen: sare sozialen arabera, kazetari ugari Bilbora joaten ari omen ziren, 19:00etan zerbait gertatuko zenaren usainean. Klasekide batekin nentorren autoan, A8 maitagarrian irratia entzuten. 19:02 markatzen zuen autoko erlojuak albistea heldu zenean: ETak armak behin betiko uztea erabaki zuen.

2011ko urriaren 19a historiako liburuetan idatzita geldituko omen da. Ohi baino arreta handiagoa jarri genion klasekideak eta biok irratiko esatariari. Denbora bat pasata, albistea jakin zenean zertan,

non eta norekin geunden galdetuko digute Imanol Murua kazetariak hurrengo egunean Berrian idatzi zuenez, eta horra nire partea.

“Eta orain, zer?” izan zen hurrengo egunetan askotan entzun nuen galdera. Iritzi asko daude horren inguruan, oso itxaropentsuak batzuk, eta eszeptiko eta pesimistagoak beste batzuk. Ez naiz iragarlea, eta ez dakit zer pasatuko den. Baina gauza bat garbi gelditu dela dirudi: momentu historiko honen aurrean, bakoitzak dagokion erantzukizunari ongi eusten ez badio, jokoz kanpo geldituko da. Kartak mahaiaren gainean daude, edo hori da nire iritzia, behintzat.

Auskalo hemendik aurrera zer gertatzen den, eta nola! ETaren adierazpenek ez diete mesederik egin zenbaitzuei. Ikusi beharko da tontakeriak alde batera utzi, eta hainbeste desio omen duten eta bozgorailuetatik lau haizetara aldarrikatzen duten bakearen bideari ekiten dioten.

Imanol Ubeda - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

### Ika-mika !!

## Auzolana, elkartasunaren instituzioa

Larunbatean Oria ibaiertzeko erriberean ez ohiko langileak zebiltzan, ez ohiko “uzta” biltzen. Gizakion etengabeko zirrikaldi adeigabea lagun, -dena esan beharra dago-, aurreko astean naturaren haserreak eragindako txikizioak nolabait konpondu edo gutxitzea zen bertaratu ginen dozenaka lagunuen helburua. Gerriak bortxatu genituen baina, hori bai, umore onean eta, gure artean denok ezagutzen ez baginen ere, herrikide egiten gaituen sentipenez blaituta.

Gehientzat auzolanean lehen esperientzia izan zen larunbatekoa. Lan kolektiboari ekiteko aspaldiko moldea, baserri batzuetan oraindik mantendu dena, desgertu egin zen zerbitzuak jasotzeko eskubidea ematen diguten zergen sistemarekin. Udalak edo Diputazioak edo Jauralaritzak edo Madrilek edo Europak egingo du,

aizu! Haien betebeharra da, guk zergak ordaintzen ditugu eta eskubidea dugu zerbitzu hori jasotzeko! Horiek beren egitekoa egin behar dute, jakina, baina naturaren indarrak gu eta haiek txiki-txikiak garela gogorarazten digunean, ez dago elkartasuna bezainbesteko instituziorik.

Usurbildarrok eman genuen erantzuna, niretzat, ez zen horrenbestereinokoa izan. Egia esateko, nik jende gehiago espero nuen. Ingurumenaren egoera gero eta kaxkarragoarekin aho bete hortz aritzen gara; serio diogu beste gizarte-eredua eraiki nahi dugula; harrotasunez adierazten diegu alboko herritarrei zaborren %80 birziklatzen dugula... Baina ikusi egin behar zer bildu genuena ehunka zakutan! Plastikoa zen, zalantzarik gabe, “arrain-mota” nagusia, poltsak, botilak eta... emakumeen konpresa eta kulero-babesleen plastikoak

barra-barra! Piper-landare burumakurretan trabatuak, ehunka “piper bitxiak” topatu genituen, benetan.

Neskak!, ez al ziguten ba, erakutsi horiek ezin direla komuneko zulotik bota? Hoditeriaren bidea gaintzen badute, argi dago errekan bukatuko dutela eta horiek gainezka egiten dutelarik, erriberetako zelaietan.

Argi da, besteren artean, elkartasuna eta ingurumenari zor diogun errespetuan oraindik bide asko dugula egiteko. Indiarren esaera zahar batek dio gure lurra ez dela gurea, gure arbasoei maileguan hartzen dugula baizik, gure ondorengoei oinordetzan uzteko. Usurbildarrok ere hori barneratzeko zer egin handia dugu aurrean oraindik.

Erriberako plastiko biltzaile bat \*

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 25. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 21.

\* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

## Bozka emateko 5 gune izango dira Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan

**H**auteskunde kanpaina ostiral gauerdian honetan amaituko da. Larunbatean hausnarketarako eguna izango da, eta ohienez, igandean azaroak 20, bozka emateko unea. Madrilgo Senatu eta Kongresuko hauteskunde egunerako Usurbilgo Udalak prest du guztia. Bozka emateko zortzi mahai egongo dira, herriko bost gune desberdinetan.

Igandean goizeko 9:00etan irekiko dira herritarrek bozka emateko guneak. Ordu horretarako guztiak prest izan behar dira. Usurbilgo Udalak urria amaieran eginiko zozketa tarteko, lan egitea egokitu zaien herritarrei ordubete lehenagorako hautes lekuetan egoteko deialdia egin zaie, goizeko 8:00etarako hain zuzen, lekuan lekuko hauteskunde mahaiak osatzeko.

### HAUTESLEAK

“Igandean goizeko 9:00etan irekiko dira herritarrek bozka emateko guneak”

### 8 mahai guztira

Guztira zortzi mahai izango dira, bost guneotan; Udarregi ikastolan, Santuenea Auzo Elkartean, Kalezarko Haur Eskolan, Zubietako Lanbide Eskolan eta Aginagako Herri Ikastetxean. Adi beraz, bozka emateko hauteskunde egunaren bezperatan bidali izan ohi duten informazioari. Bertan jasotzen baita, herritar bakoitzak non bozka dezakeen.



GOIZEKO 9:00ETAN IREKIKO DIRA HAUTESLEKUAK.

### 20:00etatik aurrera, zenbaketak eta emaitzak

Hamaika orduz zabalik egongo dira hautes ontziak. Aipatu moduan, goizeko 9:00etan hasi eta iluntzeko 20:00ak arte. Ordu horretatik aurrera botoen kontaketa hasiko da, eta ordu batzuk

geroago jakingo da hauteskundeotara aurkeztu diren alderdi eta koalizioek zer nolako emaitzak lortu dituzten.

Ohi bezala, NOAUA!-k hauteskunde gauaren jarraipena egingo du noaua.com web orrialdearen eta sare sozialen bitartez.

DISTRITOA	SEKZIOA	MAHAIA	ABIZENAK	HAUTESLEKUA
01	001	A	A-I	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)
01	001	B	J-Z	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)
01	002	A	A-Z	Auzo Elkartea (Santuenea auzoa, 12)
01	002	B	A-Z	Herri Ikastetxea (Erriberako kalea, 7)
01	003	A	A-K	Haur Eskola (Kalezarko auzoa)
01	003	B	L-Z	Haur Eskola (Kalezarko auzoa)
01	003	C	A-Z	Lanbide Eskola (Zubietako auzoa, 9)
01	004	U	A-Z	Udarregi Ikastola (Gernika ibilbidea, 11)

**TAXI**  
607 92 87 70  
943 00 44 83  
Angel (24h) USURBIL

**Errazkin S.L.**  
igeltseritza orokorra  
943 372 679 eta  
649 435 470  
kale nagusia 47, beheka A

**LATAILLADE**  
**ITURGINTZA**  
Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak  
eta mantenimendua  
Aristitxo 8, beheka 943 363 348 - 609 888 021

# Yolanda Arrietak “ABCD berri bat” proposatu nahi digu bere liburu berriarekin

**U**rriaren amaieran aurkeztu zuen “ABCD berri bat” (Mezulari, 2011) izeneko liburua. Hitzez eta irudiz osatutako lan honi esker, Peru Abarka saria jaso zuen Yolanda Arrietak. “Ozenki nahiz isilean irakurtzeko” liburua dela dio.

NOAUA! Narrazio poetiko edo poesia narratibo gisa definitu izan da zure liburu berria. Zein da album ilustratu honetan landu duzun gaia?

Yolanda Arrieta. Gaia oso sinplea da. Hegoaldetik datorren mutiko bat (ez dakigu zein hegoaldetik) iparraldera dator, ezagutu berri duen aitonaaren etxera (eta iparralde hori ere ez dakigu zein iparralde den). Gaztetxo horren egokitzapen fasea kontatzen dut lau pasuotan, hortik izenburua, ABCD.

A-z hasten da lehen atala. Gaztetxoa esnatu da eta egun berri bat hasi da.

B atalean, senide berriarekin topo egingo du, aititerek.

C atalean, leihoaz bestaldean dagoena begiratzen du. Eta iparraldekoa denez, itsasoa ikusten du, olatuak datoz, negua da, elurra egin du... Itsasoaren atzeko aldera begiratzean, atzean utzi duena gogoratzen du: haurtzaroa, adibidez.

C atalean kontatzen da gaztetxoa nola etorri den hegoaldera. Ingeles ez hitz egiten zuen emakume batek nola esan zion gaztetxo honi bazuela aitite bat iparraldean. Hegan egitearen metafora erabili dut. Gaztea konturatzen da hegan egiteak zer esan nahi duen; gehiago jakitea. Hegan eginez bere pausoak ikus ditzake eta hor kontatzen du hegan egite horrek zer suposatzen duen. Hor dabil gaztea, utzi duenarekin eta aurkitu duen horrekin adiskidetu nahian.

Onarpenaren fasea, hain zuzen, D atalean dator. Integrazioarena. Ulertu du zergatik etorri den iparraldera, berak aukeratu du iparraldera etortzea eta hor badago beste metafora bat: iparraldea eta hegoaldea ilargi beraren azpian dauden bi zati direla eta gu nora ilargia hara doala. Horixe da pixka bat



YOLANDA ARRIETA, LIBURU BERRIA ESKUARTEAN DUELA.

kontatu nahi nuen azpiko istoriotxoa. Isilik irakurtzeko modukoa da baita ozenki irakurtzeko modukoa.

## ABCD BERRI BAT LIBURUAZ

“Isilik irakurtzeko modukoa da liburu hau baina baita ozenki irakurtzeko modukoa ere”

N. Ahozkotasunaren ikuspegitik badu indarra, beraz.

Y. A. Bai, gainera ni ahozkotasunetik nator eta oraintxe jabetu naiz, albuma egiterakoan, irudigileekin lan egiterakoan, horri ematen niola garrantzia.

N. Pablo Nerudak idatzi eta Elena Odriozolak ilustratu zuen “Oda a una estrella” (Libros del Zorro Rojo, 2009) liburuaren harira bururatu zitzaizun “ABCD berri bat”, ezta?

Y. A. Bueltaka neukan ideia hau baina 2010eko udan “Oda a una estrella” izeneko liburuarekin egin nuen topo. Hartu nuen liburua eta irakurri ondoren esan nuen, “nik horrelako zerbait egin behar dut”.

Borborka nuen istorio hau bideratzeko aitzakia izan zen lan hori.

## Peru Abarka saria jaso du liburu honi esker

NOAUA! Peru Abarka saria jaso duzu lan honengatik. Lehiaketak zer ematen dio idazleari?

Yolanda Arrieta. Zergatik aurkeztu naizen lehiaketara? Beti dagoelako erronka berri bat. Hazten jarraitu behar dugu. Idazten ari naizenean, gustatzen zait nire burua estutasun berrien aurrean jartzea. Hainbeste gauza kontatu ditut eta hainbeste eratarik kontatu ditut! Antzerkia idatzi dut, ipuinak, poemak... Eta pentsatu nuen, zergatik ez ozenki irakurtzeko moduko narrazio poetiko bat idaztea? Ipuina da baina jokatu nahi nuen beste gauza batzuekin.

Inoiz egin izan ditut enkarguz iritsi zaizkidan lanak. Baina hau berez etorri egin zen. Duela bi urte Eskoziara joan nintzen, han iparra dago, ura dago. Eta ura, mareak... Aspaldi neuzkan barruan. Iaz, ordea, Andaluziako Doñana parkean izan ginen eta hondartzan bukatu genuen. Han liburua itxita ikusi nuen. Baina ez istorio aldetik, bulkada aldetik baizik. Lotuta ikusi nuen: Iparra, Hegoa.

# “Ilustrazioekin, indarra hartu du testuak”

**D**agoeneko salgai dago Yolanda Arrietaren liburu berria. Ohiko saltokietan aurkituko duzue. Beste lan batzuekin egin izan duen bezala, “ABCD berri bat” ere jendaurreko emanaldiak egiteko baliatuko du.

NOAUA! Beste Yolanda batek egin ditu ilustrazioak, Yolanda Mosquerak. Testua eta irudia, biak batera garatzeko aukera izan al duzue?

Yolanda Arrieta. Oraingoan ez. Baina banekien horrela izango zela. Ikusi nituen ilustrazio lehiaketara aurkeztu ziren proposamenak eta nik hauxe nahi nuen, Yolanda Mosquerarena. Baina polita izan da, nik ezer esan gabe osatu dituen ilustrazioak ikusteak. Testuak berak hartu du indarra, ni-a apartatuta geratu da. Nire testua hartu eta bere interpretazioa egin du. Eta gustatu zait egin duen interpretazioa. Elkarrekin egin bagenu ezberdin aterako zen, baina gustu handiz egina dago. Akaso faltan botatzen dut hegoalde hori, nik horiz imajinatzen nuena, baina hori delako buruan neukana. Baina orain liburua eskuetan, bere horretan, ez dauka ezeren premiarik.

## YOLANDA ARRIETA

“Album ilustratua ere genero bat da, ipuina edo nobela edo poesia edo saiakera den bezalaxe”

N. Osotasun bat ikusten duzu.

Y. A. Bai, hori da.

N. Haur eta gazte literaturari lotutako generoarekin lotu ohi dugu album ilustratua.

Y. A. Nik uste dut ezjakintasuna dagoela oinarri oinarrian. Album ilustratua ere genero bat da, ipuina edo nobela edo poesia edo saiakera den bezalaxe. Niri gustatzen zait haurrek ere ulertzeko modukoa izatea. Ze azken batean liburu hau ume bati ematen badiozu, bere horretan uzten baduzu, zerbait ikusiko du. Eta niri hori gustatzen zait. Umeak pertsona txikiak dira baina pertsonak



YOLANDA MOSQUERAK EGIN DITU LIBURUAREN ILUSTRAZIOAK.

dira. Zerbait ulertuko dute eta hortik aparte bitartekari bezala sartzen bagara helduok, egin dezakeguna da kontatu, edo berari utzi eta berak kontatu dezala irudietatik abiatuz. Irudien irakurketa bat dago, eta haurrek era instintiboan egin dezakete.

Edo irakurtzen dakienak irakurri ere egin dezake, osorik edo zatika. Bitartekariaren lana ere hor dago, ozenki irakur dezake edo magalean hartuta isil isilik, edo irudiekien jolastuz...

Kontuak esateko tresna batean bihurtzen da, umearekin egoteko aitzakia. Alde horretatik, irakurketa asko dauzka album ilustratuak. Album ilustratu batean irudigileak bere proposamena egiten duenez, umeek ere egin dezakete letrarik gabe irudien irakurketa. Eta hor ere badago horrelako istorio paralelo bat.

N. Idazle Eskola, Literatura Eskola, irakurle klubak... Literatura zaleak inoiz baino antolatuago daude, ezta?

Y. A. Normalizatu egin dela uste dut. Zergatik ez dugu denbora pasako liburuaren gainean hitz egiten, ezta? Hori dago horren atzean.

(...) Eta jende xehearen artean irakurzaletasuna zabaldu egin da. Jende askok euskaraz irakurtzen du beldurrak kenduta. 50 urteko jende bat alfabetatu gabekoa delako. Baina orain, hilean behin liburu bat irakurri eta iritziak ematen dituzte. Nik uste dut normalizatu egin dela, eta polita da hori.

## Durangoko Azokan aurkeztuko du jendartean

NOAUA! “ABCD berri bat” jendaurrean eskaintzeko asmoa duzu. Nolakoa izango da zuzeneko saio hori?

Yolanda Arrieta. Ahotsenean izango gara, abenduaren 4an igandea, eguerdiko 12:00etan. Lehenik eta behin azalduko dugu zer den liburua eta zati bakoitzean zer esan nahi dugun. Zati bat irakurriko dugu eta bien bitartean Yolanda Mosquera margotzen joango da zuzenean. Saioaren amaieran, marrazkiak zozketatu egingo ditut. Abenduaren 5ean Berbaron antzerkiorik egingo dugu, ume eta gurasoekin.

Nor dagoen aurrean, dena aldatu egiten da. Eta “Idazleak ikastetxeetan” programan ere sartuta daukat hau. Baina ikastetxeetan, badirudi eleberri lodia ez dena ez dela irakurtzen. Batxilergoan irakurri egin behar da, eta orriak irakurri behar dira. Poesia lantzen da, baina album ilustratua iritsi ere ez. Hain zuzen horregatik, gu joango gara esplikatzera, ozenki irakurtzera. Joko handia ematen du horrelako liburu batek.

## Lehen Udarregi Bertso Sariketa, Ane Labakarentzat

**G**iro ederrean burutu da Lehen Udarregi Bertso Sariketa. Final aurrekoetan sortu zen giroa aparta izan bazen, larunbatean jokatu zen finalekoa are ederragoa izan zen. Hemen duzu Bota Punttuba elkartetik igorri diguten kronika.

“Ia 90 pertsona bildu ginen I. Udarregi sariketako finalean Ane Labaka, Patxi Etxeberria, Luis Otamendi, Aitzol Barandiaran, Olaso eta Maialen Velardek eskainiko ziguten saio bikainaz gozatzeraz. Aurrez herrian barrena kantu jirako lagunekin motorrak berotzen aritu ziren bertsolariak eta lehen barre algarak lehertarazi zituzten tabernarik taberna kantu taldeak markaturiko doinuetan.

### Bizi hasi zen Olaso

Behin Igor Gorriti herriko sukaldariaren menuarekikoak amaitu ondoren abiatu zituzten lan puntuagarriak bertsolarietara. Imanol Arabaolaza “Txatxari” gai jartzaileak 8ko handian, 8ko txikian, puntu-erantzunean, 10eko txikian eta bakarkako lanetan jarri zituen. Haseratik Olaso oso bizi eta aizkora zorrotzurik aritu zen. Bata eta besteari erantzun zuzenean bizi eta bertaratutakoen zirrara eragiten, amaieran ikuslearen sarira zuzenean eramango zuen arrazoi nagusia. Patxi ere gustura hasi zen Maialenekin. Patxi, aitonak, bikotekide berria bilatu zuela eta biloba Maialeni sexu aholku eske jarri zituen kantatzen gai jartzaileak. Bikain Patxi, oso fresko eta konplexurik gabe, bide ematen Maialeni eta gaitik ihes egiteko tentaziorik gabe.

### Gai freskoak eta umoretsuak

Gai freskoak eta umoretsuak asko izan ziren finaleko saioan eta baita seriotasunari eta hausnarketari zuzendutakoak ere. Bertsolariak ere eskertu zuten bi belau-



90 LAGUN ELKARTU ZIREN ABERIALDEKO BERTSO-AFARIAN.

naldi ezberdinei gaiak jartzeko hartutako lana eta mimoa. Plazer bat zen, Aitzol Barandiaran bera ere, Patxi, Luis eta Olasorekin gozatuz ikustea, haur bat zirudien begi eta ahoak zabal-zabalik zituela.

Bakarkakoa izan zen saioa gehien definitu zuen unea. Ane oso ongi aritu zen. “Postontzian zigilu eta igorlerik gabeko gutun bat jaso duzu” izan zen egokitu zitzaion gaia. Ongi heldu zion, miresle sekretu baten eskutzitza irakurritz eta hainbeste maite bazuen aurpegira esateko eskatuz. Txalo zaparrada erdietsi zuen.

### BOTA PUNTTUBA

“Eskerrik asko parte hartu duten 12 bertsolarietara eta laguntzaile guztietara”

Otamendi azken uholdeetan etxeko oroigarri guztiak urak nola zeramatzen so jarri zuten. Aitzol berriz, berriro ere atzetik norbait segika zuelaren errezeloan fin.

Amaiurreko zinegotzi gisan indarkeri asko indarrean zeudela esanaz amaitu

zuen bere saioa. Patxi berriz opari bat utzi zigun. Berriro ere entzun omen zuen bere adinean normala dela. Sariketarekin lotu zuen bere lana. Egunen batean gazte eta zaharrak elkarrekin kantatzea normala dela esan zezaten animatu zela parte hartzera. Maialen ere ongi, saio osoan bezala, goxo, naiz eta batzuetan akaso ez zuen beteranoen erantzun zuzenei buelta ematen asmatu. Berak esan bezala, asko dago ikasteko, baita antolatzaileontzat ere lehena den honek datorrenarako pautak eta hobetu beharreko lanak erakutsi dizkigun bezala.

### Bi urte barru, berriro

Amairan ikusleagoak Olaso saritu zuen haseran esan bezala eta epaimahaiak Ane Labaka izendatu zuen I. Udarregi sariketa honetako txapeldun! Antolatzaileek eskerrik eta besarkadarik beroena parte hartu duten 12 bertsolarietara, Santuenea eta Aginagako jai batzordeei, Marmoles Azpirozi sariengatik, kantu jirako taldeari, M. Usabiagari, Tolari, Kermani eta J.M. Izetari epai lanak egitearren eta bereziki zuei, lehiaketako saioetara etorri zaretenoi. Bejondeizuela! Bi urte barrurarte!”

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
20170  
USURBIL  
Tlf 943 37 08 78

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



• PUBLIERREPORTAIA •

USURBILZEN

Trukalariak



Usurbil Zero Zabor



Usurbil



Usurbilgo Udala

## Zero zabor: sistema zirkularra

**Z**ero zabor, dagoeneko nahiko ezaguna den terminoa da gure artean. Oro har, zer esan nahi duen ulertzea erraza da. Baina ideia hori zehazki zertan datzan herri-tar orori azaltzea, oraindik egiteke dagoen lana da.

Egun munduan nagusi den ereduari, materialen ekonomia lineala deritzo, materialek ekonomian zehar "joaneko" txartelarekin bakarrik bidaiatzen dutelako. Natura ustiatzerakoan hasfen da materialeen bidaia. Eraldatu, merkaturatu, erabili eta botatzerakoan bukatzen da. Materialak zaborte-gietan pilatuta alferrik galtzen dira, nahiz erraustegitik pasatakoak ala zuzenekoak izan. Ustiatu-kontsumitu-bota, ustiatu-kontsumitu-bota lerroa behin eta berriz errepikatzen da. Sistema linealak arazoak sortzen ditu katearen bi muturretan: Natur baliabi-deen gain-ustiapena eta zabor/kutsadura metaketa. Mundu mugatu batean mugarik ez balu bezala jokatzek ez dauka etorkizunik.



USTIATU-KONTSUMITU-BOTA LERROA BEHIN ETA BERRIZ ERREPikatzen da.

Horren aurrean, sistema zirkularra edo zero zabor sistema daukagu. Materialak behin eta berriz erabiltzeko berreskuratu egiten dira. Zikloa itxi, eta produktu berriak ekoizteko, "meategi urbanoetara" jotzen da, hondakineta-  
ra.

Zero zabor sistema, ez da mugatzen materialak berreskuratzen. "Hondakin onena sortzen ez dena" leloa bere egiten du. Zenbat eta hondakin gutxiago sortu, energia eta azpiegitura gutxiago behar da bildu eta birziklatzeko. Hondakinak murrizte-aren adibide modura esne makina jar dezakegu. Botila bat behin eta berriz

bete dezakegu, inolako hondakinik sortu gabe. Eta egunerokoan gure poltsa, tuper eta ontzi berrerabilgarriak erabiliz, egunero-egunero hondakin mordoak sortzeari utziko genioke.

Zero zabor sisteman, berreskuratu ezin den kondarrarekin bi egiteko nagusi daude: Lehenik, ikerketa. Errefusa hori zerk osatzen duen aztertu, horretara zergatik iritsi den jakin eta zuzentzeko neurriak hartzeko.

Bigarrenik, inertizatzea edo egonkor-tzea. Berreskuratu ezin den zatia trata-tu gero errefusategi batera eramate-ko, ingurumenean kalterik egingo ez duela ziurtatuz.

Orain Olarrondo jatetxean....

10€

**EGUNEKO MENUA**  
(OSTEGUN ETA OSTIRAL GAUA BARNE!!)

10€

LEHENENGO PLATERA (9 AUKERATZEKO)  
BIGARREN PLATERA (9 AUKERATZEKO)  
ETXEKO POSTREAK

OGIA ETA EDARIAK BARNE (URA, ARDOA EDO SAGARDOA)

OSTEGUN ETA OSTIRAL GAUA BARNE!!!!

10€

OLARRONDO  
JATETXEA

Olarrondo Jatetxea  
5 zenbakia. USURBIL  
erreserbak: ☎ 943 360 376  
www.olarrondojatetxea.com

## Auzolanerako deia ez zen oharkabean pasa

**E**uriteak atertu zuenean, zakar ugari agertu zen errio bazterretan. Garbiketa lanak ahalik eta azkarren bideratu asmoz, Usurbilgo Udalak auzolanerako deialdia egin zuen. Zubietan, 25 lagun aritu ziren lanean. Atallun, 40 lagun inguru. Txokoalden ere koadrila majo bat osatu zen.

### Kaltetuentzat arreta bulegoa

Azaroaren 6ko euriteek kaltetu dituzten herritarrek euren egoeraren berri emateko aukera dute azaroaren 23 arte, Udalak zabaldu duen informazio bilketa zerbitzu berrian. Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 artean, udaletxeko harrerara gerturatuta eman ahal izango dute zehaztasun guztien gaineko informazioa.

Udalak berri eman duenez, zerbitzu honetara jotzeko asmoa duen herritar kaltetuak honako datuok eman beharko

ditu; bere izen abizenak, telefono zenbakia, kaltetutako ondasuna, kalteen deskribapena, batz besteko balorazioa eta ondasuna aseguratua duen edo ez zehaztu beharko du.

### Udalaren esker ona

Zerbitzu hau martxan jarri izanak halere, Usurbilgo Udaletik argitu nahi dutenez, "ez du inolaz ere ordezkutzen aseguru etxeekin egin beharreko tramiteak. Kaltetua izan den edonork egin behar duen lehenengo lana bere aseguruari kalteen jakinarazpena da".

Udalaren izenean, "auzolan deialdiari herriak emandako erantzun ona eskertu nahi dut eta, Udaltzaingoa, Brigada eta Pikaola garbiguneko langileei bereziki, erabat lotu baitziren lanari behar izan zenean, euriteek sortu zituen une kritikoenetan eta hurrengo egunetan ere, neke-



LARUNBAT GOIZEAN ARITU ZIREN LANEAN ERRIBERAN (IBAI ARRIETA).


ak gaudituz, gogoz lana egin zutelako. Tajuzkoa da errekonozimendu hau egitea Udalaren aldetik", adierazi du Mertxe Aizpurua alkateak. Eta kaltetuei "udal honen elkartasuna eta laguntza oso eskaini nahi diegu. Horretarako laguntzak lortzeko saiakera egiten ari diren erakundeekin etengabeko kontaktuan gaude eta informazio berriak jaso ahala, Usurbilen galerak pairatu dituztenei jakinaraziko zaie".




ARGAZKIAK: IBAI ARRIETA.



## Ur-jasa argazkitan (Ibai Arrieta)



## Ur-jasa argazkitan (Mikel Castro)



# Euriteak, errio ertzetik ikusita

**K**alte nabarmenak eragin dituzte, Oria ibaia bere ohiko bidetik aterarazi zuten azaroko lehen asteburuko euriteek. Errio izkinan bizitzera ohituak dauden bi herritarren lekukotzak datoz jarraian. Euriteok nola bizi izan zituzten eta ondorioei nola aurre egiten ari zaien adierazi diete NOAUA!-ri.

**NOAUA! Nola gogoratzen duzue euri-jasen igande hura?**

**Joxean Lazkano.** Goizaldeko zazpietan, ura nahiko goian zegoela abisatu ziguten. Etorri ginenerako ura barruan zegoen. Hortik hasita gero urak behera egin zuen eta "horretan geratzen bada hor nonbait", genion. Handik ordubetera, ordea, ura berriro gora hasi zen. Gauzak nola edo hala atera genituen baina azkenean atera ezin diren gauza asko geratzen dira eta horrek galera handiak sortu dizkigu.

**N. Galera asko, denetarik izan duzue?**

**J. L.** Lohia kentzen egunetako lana dugu. Sukaldeko elektrotresnak urak denak gaineratik pasa ditu, hankaz gora dugu. Horiek salbatzen zaila izango dela esan digute. Horri erantzuna emateko seguruak esaten dutenaren zain gaude. Sagardoak salbatzeko moduan izan ginela uste genuen, baina badaezpada denak aztertzeraz bidali ditugu. Ez dugu arriskuarekin jokatu nahi.

**N. Azterketen emaitzak jaso dituzue?**

**J. L.** Ostiralean jaso genituen. Erretiratu genuen kupela bat izan ezik, gainerako kupeletan emaitza ona eman dute. Uhalen aurretik aurten gainera oso gustura geunden eginiko sagardoarekin. Emaitza hauekin orain, urtarrila arte egiteke ditugun garbiketa eta prestaketa lanak asko erraztuko dizkigute, pozgarria izan da guretzat. Emaitzak gaizki atera izan balira ere, garaiz ibiliko ginen kupe-lak hustu eta sagardoa berriz egiteko.

**N. Txotx denboraldia hasterako sagardotegia irekia izatea aurreikusten duzue?**



URA IRITSI ZEN MAILA ZEHAZTU ZIGUN JOXEAN LAZKANO.

**J. L.** Irekita bai. Irekita izango dugu, bezeroen zain geratzen gara.

## JOXEAN LAZKANO

"Ostiralean jaso genituen kupelen azterketak eta emaitza onak eman dituzte"

**N. Seguru-etxeetako perituek lehentasunak ezarri dituzte, zeintzuk?**

**J. L.** Geure seguruko perituek esan zigun, kalteak handiak direnez, ez dituela seguruak ordaintzen, konsorzioak baikizik. Inguruan zenbateko kalteak dauden ikusita, konsorzioak lehentasunak jarri ditu. Lehenbizi enpresa handiak, gero enpresa txikiagoak, segituan ireki behar diren komertzioak, etxeak... Gu geldirik gauden komertzio bezala atzerago gaude, baina etorriko direla ziurtatu digute. Hainbesteko galerak izanda, ez dakigu ordea zer nolako beherapenekin etorriko diren. Guneak erabiltzeko moduan geratu behar du.

**N. Kaltetu moduan, zer da behar duzuen?**

**J. L.** Ondo aseguraturua dugun horri seguruak behar bezala erantzutea. Zenbat salbatuko den ez dakigu. Bestela, pena

handia izango da bota behar ditugun gauza piloagatik. Gure azken 10-15 urtetako ibilbidearen historia txiki hori ez dut esango erabat, baina asko galdu egingo da. Berriro hastea bezala izango da.

**N. 83ko uholdeekin alderatu dira joan den igandekoak. Oraingoek zer bereizgarri izan dituzte?**

**J. L.** Orduan ere sagardoaren munduan bagenbiltzan, ez oraingo tamainan. 81ean etxeko obra egin genuen. Hemen genituen kupelak Zabalera eraman genituen. 83ko udan, muntatzen hasteko ekarri genituen. Guk ekarri eta errioak eraman. Ateak puskatu zituen orduko hartan. Ukuiluko egurrezko tresneria, barrika hutsak ere eraman zituen, are arriskutsuagoa zena. Urak altuera gehixeko harrapatu zuen baina egurrezko gauzak gutxiago kaltetu zituen, oso denbora gutxian egon baitzen ura. Azkar sartu ahal izan genuen garbitzera. Oraingo honetan, ordu batzuetatik uretan egon ziren gaueko bederatziak arte. Bestalde, zerbitzu publikoek orduan agertzen ez zuten indarra dute. Orain errazago ailegatzeko dira batera eta bestera.

**N. Orduko esperientziak ere ikasteko balioko zuen, ziurrenik oraingoak bezala?**

**J. L.** Bai. Igande goizaldean hiruretan etorri omen ziren larrialdi zerbitzuetako-

ak. Baina ez zuten atea jo. Guk etorri zirenean jakin izan bagenu, agian beste gauza asko ateratzeko denbora izango genuen. Baina ez genuen izan. Hor larrialdietakoek, aurreikuspen eta komunikazio falta izan zutela uste dut. Gainerakoan ez dut inolako kezarik, gainera inguruetan zer txikizio eragin dituen ikusita, pozik egoteko moduan gaude. Erriorearen ibarrean gaude, hala-ko egoera gehiago izango ditugu.

**N. Joan den igandekoaren ostean errio ondoan bizitzeak perspektiba aldatzen al du?**

**J. L. Errio bazterrean egotera ohituta gaude, errespetua diogu erriolari, beldurra gutxiago. Ikusten dudana da, zubiak dituen zuloak, horiek direnak dira, baina haren aldamenetan egin diren gauzak altxa egin dira. Lehen urak behin erribera harrapatzen zuenean, erribera guztian joaten zen, eta erribera maila horrek ur asko eramaten du. Baina orain Ingemarrek duen horma gainditu behar du urak eta gainerako guztia zubiko zuloetatik pasa behar du urak. Orduan ura nora dator, alderdi honetara.**

**N. Uholdeak ezin dira saihestu, baina zer hobetu liteke, etorkizunean agian kalteak gutxitzeko?**

**J. L. Presak mugikorra behar luke, lohia eramateko. Tren zubiak begi gehiago eta handiagoak behar lituzke agian, ur gehiago pasatzeko.**

**Ibaian dauden zuhaitzak ere paretak dira urarentzat.**

**Bestalde, zer gertatzen da uholdeen ostean geratzen diren zaborrekin? Erria ahalik eta garbien egotea interesatzen zaigu. Eta ikusten da, hobetu den lekuetan, Lasarte-Orian adibidez, ez dela halako arazorik izan. Puntu beltz horietan gutxienez zerbait egin beharko litzateke.**

## “Oraingoa, txarrean ondo pasa da”



PATXI MAIOZ, ERRIO ONDOAN.

**NOAUA! Etxeraino sartu zaizue ura.**

**Patxi Maioz. 40 zm izan genuen etxean. Terreno guztiak uretan, baina hutsak zeuden eta kalterik ez. Lana ugari utzi du. Oraindik hor ari gara garbiketa lanean. Trasteak oraindik bakoitzak bere lekuan jarri behar.**

**N. Inguruan zer kalte ikusi dituzue?**

**P. M. Aginagan denean egiten du kaltea, harrapatzen duen guztia. Inguruotan bi etxe harrapatu ditu. Batean oheak ere gora altxa zituen.**

**N. Lehen ere uholdeak bizitakoak zarte, euriteok nolakoak izan dira zuentzat?**

**P. M. Oraingoak txikiagoak izan dira, halere nahikoa bazen. Etxe honetan asko sartzen zen lehen uholdea, orain baino baxuago eraikia zegoen. Txiki asko, baina hiru uholdea handi bizi izan ditut, oraingoak, 83 eta 53koak. Esaten ari nintzen, 2013an egokitzen zela berriz. Baina oraingoan bi urte aurreratuta etorri da.**

**N. Esperientzia okerrera 53koa izan zela diozu, nola gogoratzen duzu?**

**P. M. Gauean etorri zen. Goizeko bostetan gure arreba ohetik altxa, ukuiluak**

**eta dena urez estalita eta hankak putzutan zituen. Ohearen hankak ordurako urak harrapatuta. Lorik ez genuen egin gau hartan. Etxe barruan lau bat metroko ura edo gehiago hartu zuen. Txikizioak izugarriak izan ziren. Uholdeak beti dira txarrak, baina oraingoak garai onean etorri dira. Gauean izan bazen, okerrago ibiliko ginen. Oraingoa, txarrean ondo pasa da.**

**N. Uholde egoerei aurre egiteko modua aldatu egin dela esango zenuke?**

**P. M. Trasteetan dugu alde. Orain traste gehiago ditugu etxean eta okerrago ibiltzen gara. Lehen behiak eta ateratzen genituen, eta karroren bat, baratzak garbitu behar. Orain etxeko trasteak ere salbatu behar.**

**N. Zer egin kalte gutxiago izateko?**

**P. M. Erria kanalizatu beharra dago. Lasarte salbatu egin da oraingoa. Zergatik? Txukun jarri zutelako, behar den bezala, urari pasoa eman diote. Presak enbarazu egiten du neure ustez. Irlak ere zer egiten du? Hori gabe, urak askoz beherako izango lirateke. Aurrera begira uhalak berriz etorriko direla, ez egin dudarik.**

**BENTA  
TABERNA**

HANBURGESAK

Oilasko erreak  
Ogitartekoak

943 36 93 05

**Poxpolin**

MERTZERIA

943 36 82 06

Zubiaurrenea 3, baxua

teilatua eta fatxadak

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Obaba kalea 29 · ASTEASU

943 69 68 52 · 620 800 186

# Bero gehiegi Behobia-Donostian

Hauek dituzue Behobia-Donostiako web orrian topatu ditugun usurbildarrak

IÑAKI GERICA JUAN	01:13:53
IÑAKI AÑORGA UNANUE	01:19:02
JON TAPIA LIZARRAGA	01:19:25
JUANJO ESTEVEZ MARTIN	01:24:05
JON RUEDA ETXEBERRIA	01:24:32
ARITZ HOLGADO ESNAOLA	01:25:39
JON IRAZUSTABARRENA LIZARRALDE	01:27:06
BEÑAT LORENZO OLASAGASTI	01:27:06
ION MARTIN GRANADOS	01:27:17
ELLANDE LOITI VITORIA	01:27:17
AITOR OTAMENDI LIZARAZU	01:27:27
ABBAT MAYOZ MANCISIDOR	01:27:48
IDOIA EZEIZA IRURETAGOIENA	01:27:58
TITO IZAGUIRRE GODINEAU	01:29:27
CARLOS FERNANDEZ ESTEBAN	01:29:44
SERGIO MARTIN CANTERO	01:30:50
ROSA URIBE NAVARRO	01:31:06
ANDONI LIZARRALDE IRAOLA	01:31:14
MIKEL IBARRETA BORDA	01:31:20
ARITZ OLAGOI OLAZABAL	01:31:55
FRANCISCO JAVIER RABANO RUBIO	01:32:00
JOSE MARI SEOANE MAYOZ	01:32:41
AITOR ARRUTI BELDARRAIN	01:33:42
JOSEBA REZOLA EIZAGIRRE	01:33:58
JOSEBA K. ZUBIZARRETA IRAZUSTA	01:34:05
ESTEFANO IZAGUIRRE GODINEAU	01:34:18
AITOR JAUREGUI URDAMPILLETA	01:34:38
MIKEL TENA DAVILA	01:35:20
GUILLERMO RUEDA ETXEBERRIA	01:36:57
JUAN MARI AGOTE GOIARAN	01:37:06
ENEKO PORTU IRASUEGI	01:37:16
JOSU ALUSTIZA NAVARRO	01:37:56
ALFONSO LÓPEZ GARCÍA	01:38:18
PELLO ZUMETA BERAETXE	01:38:35
IÑAKI ECHEVARRIA ORBEGOZO	01:38:42
JUAN GALARDI MENDILUZE	01:38:44
JUAN CARLOS PEREZ LIZARRALDE	01:38:54
ASIER PORTULARRUME ISASTI	01:39:06
ANDER IRURETAGOIENA ERORKI	01:39:42
F. JAVIER RODRIGUEZ CUENCA	01:41:06
IÑIGO UNANUE AGUIRREZABALA	01:41:23
UNAI AGIRRE OTEGI	01:41:24
IÑIGO ALKORTA ETXEBERRIA	01:41:50
GORKA IBARRETA BORDA	01:43:20
ARITZ MARTIN LIZASO	01:43:24
ANTONIO GALLEGO GARCIA	01:44:07
ALFONSO VIDAL URDAMPILLETA	01:44:08
IÑAKI EIZAGIRRE SAGARDIA	01:45:34
KARMELE LICEAGA ALCANTARA	01:45:44
TXUS IGLESIAS RIO	01:47:17



AURTEN ERE BEHOBIA TXIKIN PARTE HARTU DUTE: ANE, IKER, IZARO, PAULA, UXUE, SERGIO, JON E., DIEGO, IMANOL, JULEN, JON U., XABI, MARIA E., MARIA G., ARANTXA, NAHIA, ETA ELENE.

JOXEMARI PORTU AZPIROZ	01:48:14
ION PORTU IRASUEGUI	01:48:14
MOISES ANDRES ZUBIRIA	01:48:52
JON ELORZA IRIGOYEN	01:50:39
DANIEL ITURBE PALACIOS	01:50:39
JOSU UDABE PAGOLA	01:50:41
IMANOL ZALDUA UNANUE	01:53:13
GORKA ASTIAZARAN AIZPURUA	01:54:40
JOSU PORTU ALZAGA	01:54:58
ITZIAR OCHAGAVIA AZPITARTE	01:57:50
JULEN OTXAGABIA AZPITARTE	01:57:50
LOREA ALDABALDETREKU AGIRRE	01:59:40
SERGIO MONTES GUERRA	02:00:01
SERGIO RIAÑO PARRA	02:00:33
CESAR DE LA FUENTE GARCIA	02:00:37
IKER CORRAL LIZARRAGA	02:00:46
JOSEAN RODRIGUEZ MARTINEZ	02:01:47
MIKEL IRASTORZA LEUNDA	02:03:11
ESTEBAN ROTETA BALERDI	02:04:51
AITOR ALONSO GRANADOS	02:05:40
DIANA MARTIN PARRON	02:09:43
MAMEN TARDÍO NÚÑEZ	02:09:59
JON LIZASO MANTEROLA	02:14:10

## Rollers

CARLOS JIMENEZ GOYA	00:46:45
BELÉN VICENTE MODRÓN	01:01:42

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
URDAINTZI@EUSTAINET.NET  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

## Usurbil FTko taldeen aurkezpena larunbat honetan izango da

**U**da amaieraz geroztik lanean diren arren, iaz egin bezala, aurten ere denboraldi berriko aurkezpena egingo du Usurbil FT-k, larunbat honetan, azaroaren 19an. Eguerdiko 13:00etan jarri dute hitzordua, Mikel Laboa plazan. 2011-2012 kirol urterako osatu diren taldeak bildu eta argazki bana aterako dute aipatu ekitaldian.

Jokalariei deialdietako poloa eta txaketa eramatea eskatzen diete Usurbil FT-ko zuzendaritzakoek. Eta gaineratzen dutenez, "gauzak behar bezala egiteko, guztion asistentzia beharrezkoa da; hala nola, ordua errespetatzea ere ezinbestekoa da. Aldez aurretik, mila esker eta aupa Usurbil FT".

Usurbil FT lagundu nahi duenak



MIKEL LABOA PLAZAN ELKARTUKO DIRA  
TALDEKAKO ARGAZKIAK ATERATZERA.

orain du horretarako aukera. Futbol taldeen bilguneak bazkietza kanpaina abiatu du. Usurbil FT-ko bazkide izateko, Caja Rural-Ipar Kutxako sukurtsalera joan eta "Socio Usurbil FT" izeneko kontu korrontean 20 euroko ordainketa egin besterik ez dago, norbere izen eta bi abizenak adierazita. Ordainagiria Harane futbol zelaiko tabernan aurkeztuz gero, Usurbil FT-tik berri eman dutenez, "dagokion oparia banatuko du".



**I**bañetako gaitetik abiatu eta Donibane-Garazi ingururaino hainbat gailur egin zituzten Andatzako kideek. Talde ederra bildu zen Ipar

Euskal Herrira eginiko irteeran. Andatzatik berri eman dutenez, ibilbide dotorea, baina egun haizetsua izan zuten mendizaleek.

## Udalaren omenaldia jaso dute kayaksurf-eko txapeldunek

**N**OAUAlko Kulturaldiaren harira, hitzaldia eskaini zuten pasa den ostiralean Xabier Olanok eta Garazi Iturraldek. Duela gutxi, munduko txapeldun izan dira Euskal Herriko selekzioarekin. Kayaksurf-ari buruzko hitzaldiaren amaieran, Udalak eta Kirol Patronatuak oroigarri bana eman zieten. Mertxe Aizpurua alkateak eskerrak eman zizkien herriaren izenean.



SUTEGIN JASO ZUTEN UDALAREN  
ETA KIROL PATRONATUAREN  
ERREKONDOZIMENDUA.

## Zubeldia taldearen bazkaria, azaroaren 26an

**U**rtero legez, Peña Zubeldiako kideek bazkaria antolatu dute Aginaga sagardotegian. Otordua, azaroaren 26an ospatuko da. Txartelak salgai egongo dira 27 eurotan Txiribogan, hilaren 24ra arte.

### Pilota partidak

AZAROAK 18 OSTIRALA

19:15ean Aginagan

Eskuz binaka nagusiak 2. maila

Usurbil 2 Mundarro  
(Asier Katalina - Laurent Erreka)

Eskuz banaka nagusiak

Finalerdia Usurbil (Ibon Aranalde)-Mundarro

Eskuz binaka nagusiak 1. maila

Finalerdia Usurbil - Hernani  
(Xabier Santxo - Iñigo Altuna)

AZAROAK 19 LARUNBATA

12:00etan Usurbil

Eskuz binaka nagusiak 2. maila

Finalerdia Usurbil - Beloki  
(Asier Portu - Mikel Landa)

### Etxeko eskubaloï partidak

Senior neskek, Euskal Liga A, 16.30h  
Atez Ate Usurbil - Ehariñalea

Senior mutilak, 2. nazionala, 18.00h  
Atez Ate Usurbil - Indupime Basauri

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

IAITETXEA - TABERNA  
**BELARTZA**

943 37 60 82

### Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, raziok...
- Umcentzat menu bereziak
- Ateseden egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN

Polligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 - A4 Pabiloia • Donostia

## Potxoenearentzat izen berri baten bila

**E**tenaldi luze baten ostean, 2008ko urtarrilaren 30ean bildu zen lehen aldiz alorreko herri eragileak eta udal ordezkariak biltzen dituen Kultura Aholku Batzordea. Ordutik ia lau urte igaro dira. Legegintzaldi berri honetan ere gobernu taldeak aipatu bilgune honi eutsi nahi dio, eta lehen hitzordua finkatua da jada, azaroaren 23rako, datorren asteazkenerako beraz. Gai hauek jorratuko dituzte bertan: Kulturako Prozesu Partehartzailea: ekintzen epekatzea; eta kulturako diru-laguntzen berri ematea.

Irazu kalean eraiki berria izan eta laster irekiko den kultur etxea ere ahotan hartuko dute bilkurara bertaratuko diren eragile eta udal ordezkariak. Guneari izena jartzeko proposamenak bildu nahi dituzte. Bilkuraren baitan, batzorde kideek kultur etxe berria barrutik nola geratu den ezagutzeko aukera izango dute, bisitaldia egitea aurreikusia baitago egun horretan bertan.

### Izena proposatzeko aukera

Irekitzear den kultur etxe berriak izen bat behar du, eta horretarako, Usurbilgo Udaletik proposamenak bidaltzeko eskaera egiten diete herritarrei. Euskara eta kultur arloko udal departamendutik gogorarazten dute-



PROPOSAMENAK E-POSTAZ BIDALI  
DAITEZKE HONAKO HELBIDERA:  
KULTURA@USURBIL.NET

nez, "Izena duenak badu izana dio esatera zaharrak. Eta iritsi da Kultur Etxe berriari izena jartzeko garaia. Usurbilgo Udalak Kultur Etxe berrirako izenen proposamenak jaso nahi ditu. Hori dela eta, Kultur Etxe berriarentzat izen-proposamenik baduzu, eskertuko genizuke azaroaren 23a baino lehenago Usurbilgo Udaleko Kultura Sailera (kultura@usurbil.net) proposamena helaraztea edo azaroaren 23an egingo den Kultura Aholku Batzordera etortzea proposamenarekin".

### Udalbatza aretoan

Eguna: azaroak 23, asteazkena.  
18:00etan, udalbatza aretoa.  
Deitzailea: Usurbilgo Udala.

### Ostegunean, "Musikalean"

**Z**umarteko kideek ostegun honetan ospatuko dituzte Santa Zezili egunaren omeneko ekitaldiak. Euskal Herriko gainerako lekuan lekuko musika eskolek egingo duten moduan, Usurbilgoak ere kalera irtengo dira arratsaldeko 18:00etan. Trikitixa eta pandero taldekoek Kaxkoan barrena kalejira burutuko dute, eta ordubete beranduago, Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertua eskainiko dute Sutegiko auditorioan.

### Ernioko kobazuloak bisitatzera, ITAYArekin

**E**rnioko kobazuloak ezagutzeko aukera egongo da larunbat honetan, azaroaren 19an. ITAYA Gazte Asanbladako kideek hara joateko irteera antolatu dute. Goizeko 8:30ean abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Iturriotzera kotxez joateko asmoa dute, eta handik oinez abiatuko dira kobazuloetara. "Pare bat ordu egin eta eguerdirako berriz etxean izango gara", ohartarazi du antolakuntzak. Irteerara eraman beharrekoeak ere zehaztu dituzte: linterna (frontal eta eskukoa, biak hobe), arropa zaharra eta aldatzeko arropa badaezpada. "Nahi duenak kaskoa ere ekar lezake", gaineratu dute.

## Santuenea eta Artzabalgo tabernen kudeaketa esleitzeko deialdia

**S**antueneko eta Artzabalgo jubilatuen Setxeetako tabernen kudeaketa esleitzeko deialdia egin du Usurbilgo Udalak. Bi kasuetan, abenduaren 5ean amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

Santueneko "Gure Elkartea" jubilatuen lokaleko tabernaren erabilpen eta kudeaketaren kontratazioa. Xedea: Gure Elkartea Usurbilgo jubilatuen elkar-teak Santuenean duen lokalaren zerbitzu osagarri moduan bertako taberna zerbitzua eta lokalaren garbiketa aurrera eramatea.

Burutzeko epea: Urtebete, beste hiru

urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, orotara, 4 urte.

Proposamenak aurkezteko epea: 2011ko abenduak 5 (eguerdiko 14:00ak).

Artzabalgo "Gure Pakea" jubilatuen lokaleko portxea, sarrera, taberna, jangela eta behe oineko zerbitzu osagarrien erabilpen eta kudeaketaren kontratazioa. Xedea: "Gure Pakea" Usurbilgo jubilatuen elkar-teak Artzabal eraikinean duten egoitzaren zerbitzu osagarri moduan bertako taberna-jantokiaren kudeaketa, zaintza, harrera eta behe oineko garbitasuna aurrera eramatea.



ARTZABAL BASERRIA.

Burutzeko epea: Urtebete, beste hiru urtez luzagarria urtez urte. Gehienez ere, orotara, 4 urte.

Proposamenak aurkezteko epea: 2011ko abenduak 5 (eguerdiko 14:00ak).  
Informazio gehiago: [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)



## Agenda!

**Azaroak 17 osteguna**  
Musikalean kalejira 18:00etan.

**Azaroak 18 ostirala**  
Hardcore Gabba Akerra gaztetxean  
Ernia, Carlito, Keep Diggin taldeekin.

**Azaroak 19 larunbata**  
- Ernioko kobazuloetara irteera  
8:30ean Mikel Laboa plazan.  
- Bertso bazkaria Zubietan.

**Azaroak 20 igandea**  
Ipuinaren bila haur antzerkia  
Sutegin, 17:00etan.

### Goardiako farmaziak

**Azaroak 17, osteguna**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 18, ostirala**  
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Azaroak 19, larunbata**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 20, igandea**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 21, astelehena**  
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Azaroak 22, asteartea**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Azaroak 23, asteazkena**  
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Azaroak 24, osteguna**  
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Azaroak 25, ostirala**  
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Azaroak 26, larunbata**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

**Azaroak 27, igandea**  
Acha-Orbea, Hipodromo 6 Lasarte

\* Larunbatetan, *Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani  
Telefono zenbakia: 943 336 077.  
[www.noaua.com](http://www.noaua.com) webgunean 2011ko egutegia

## Bertso bazkaria eta patinaje ikastaroa asteburuan Zubietan

**U**nai Muñoa, Iñaki Gurrutxaga, Mantxi eta Asier Azpiroz zubietarra bertsoan arituko dira larunbat honetarako Zubietan Lantzenek antolatutako bertso bazkari musikatu mundialaren baitan. Hitzordua 14:00etarako finkatu dute Zubietako elkarteak.

Asteazken honetara arte zegoen, txarrelak erosteko aukera.

Bestalde, in-line patinaje ikastaroa burutuko da larunbat eta igandean, Zubietako frontoi estalian. Goizez izango dira saioak, 11:00-13:00 artean eta 6-14 urte arteko haurrei zuzenduak



ZUBIETA LANTZENEK ANTOLATU DU BERTSO BAZKARIA.

egongo dira. 15 lagunentzako lekua baino ez zegoen ikastaroan, izena aldeztatik eman beharra dago, 660 779 160 telefono zenbakian.

### Autokonpostaje ikastaroa Artzabalen

**U**surbilgo Udalak autokonpostatzeari buruzko ikastaroa antolatu du, ostegun honetan, azaroaren 17an Artzabalen. Ikastaroa, iluntzeko 19:00etan hasiko da.

### Sohütako ikastolaren aldeko otarreak

**S**ohütako ikastola laguntzeko aukera egongo da aurten ere, eguberrietako otarreak salgai jarri dituzte eta. Eskuratzeko, izena eman behar da Txiribogan edota Bordatxon, baita NOAUA!-ko egoitzara deituta ere. Bi otarre izango dira aukeran.

### Datorren astean, Ekozinemaldia Sutegin

**U**surbiltzen Elkarrekin eta Ekologistak Martxan taldekoek Ekozinemaldiaren edizio berri bat antolatu dute datorren asterako, azaroaren 24 eta 25erako. Sei film proiektatuko dituzte Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da.

#### Urriak 24, osteguna

19:00 Filmak: "La edad de la estupidez" eta "Gure Boliviarekiko zor ekologikoa".

#### Urriak 25, ostirala

19:00 Filmak: "Al final de la linea", "La tierra es nuestra", "Muga eta merkatuen historia", "La historia del agua embotellada".

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
USURBILGO ATARIA

  
**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

**BORDATXO**  
*edaritegia*

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5  
Telf: 943 37 10 42

Josue  
Igeltseritza:

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

## ETXEBIZITZA

- Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro karratuko trasteroa, dena berritua, fatxada eta teilatua konpondu berriak. 677 471 648.
- Altxariak izan eta bi gela dituen alokairuko pisu baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Fidanza eman dezakegu. 626 154 994 / 697 230 419.
- Etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 3 logela, 2 bainu-gela, sukaldia eta egongogela. Tlf.: 626 347 914.
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldia, komuna. 120.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Usurbilen, 70 metroko etxebizitza bat alokatzen da, eguzkitsua. Tlf: 608 671 925. Imanol.
- Pisu alokairuan Atxegalden. 3 gela, sukaldia, bi komun, terraza eta igogailuarekin. 943 371 066 / 637 309 209.
- Etxebizitza bat alokatzen da Excealdian. 2 logela, sukaldia, egongela. Eguzkitsua eta berritua. 620 565 731.
- Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.
- Alfaron dudan pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gautean deitu).
- Alokairuan den pisu baten bila nabil. Idoia 695733535.
- 90 m pisu bat salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua eta bizitzentzako jartzeko moduan. 699 680 265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu). 237.000 euro.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldia-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegian ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- 230 metro etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro koadro lursailen. Kalezarren. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Kaxkoan etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Lokal komertzial bat alokatzen da Atxegalden, Aritxotz kalean. Bi solairu, bakoitza 45 metrokoa, guztira 90 metro. Argia, ura eta komuna. 658 716 970.
- 38 m2-ko garaje itxia salgai, Txaramunton. 665 677 195.
- Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalean. 647 120 253.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurren. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaerak

- Atsedena agindu dioten ama batek ama den emakume eus-

- kaldun eta eskarmentuduna behar du, egunean 4-5 orduz haur bat zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. 607263383.
- Zerbitzari euskaldun bat behar da asteburutan lan egiteko. Lan egin nahi baduzu, deitu zenbaki hauetara: 680 483 164 / 607 454 879
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaijan egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinazte? Hala bada, pasa zaitez Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

## Lan-eskaintzak

- Usurbilgo neska gazte bat naiz, Heziketa Berezian diplomaturia eta psikopedagogian lizentziatua. Goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. Badut esperientzia baita hezkuntza premia bereziak dituzten haur eta gazteekin ere. 688 661 997 / 943 365 005.
- Neska euskalduna eta usurbildarra naiz, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteriztan eta Haur Hezkuntzan diplomaturia naiz. Badut esperientzia. 652712099.
- Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko, edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. Tlf: 628 692 334.
- LHko haurrentzat klase partikularrak emateko neska eskaintzen da. 680 453 563 (Maialen).
- Emakume arduratsua eta erreferentziak eskaintzen da, etxeko lanak egin, umeak zaindu, edo lan desberdinak egiteko. Lana behar dut. Tlf.: 626 370 969.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak emateko prest. Matematika, Marraketa... Tlf: 687 674 161.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egin, umeak zaindu... Esperientzia daukat, kotxearekin eta euskaraz dakit. 943 365 079.
- Matematikako klase partikularrak, maila guztietan, 18 urtetako esperientzia. 646717676.
- Ingeles neska natihoa, haurtzaindegiko irakaslea 3 urtetik 8 urte arte klase partikularrak emateko prest. 656753063.
- Esperientzia duen neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko. 660041361.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da adineko pertsona bat zaintzeko, nahi den ordutegian. Disponibilitate osoa ordutegi aldetik, astelehenetik ostiralera. 687 348 223.
- Bertako emakumea, 50 urte, dibortziatua eta famili kargarik gabe, pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da. Interna lanetarako ere. 697 245 186, Idoia.
- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egin pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles natihoak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendar lanetan arituko nintzateke goizez. 620 093 697.
- Garbiketa lanetan edo dendar moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gautan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditut ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lane-

- an aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolan egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolan egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratze lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klaseak emateko prest. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Gas naturalarekin funtzionatzen duen bost sutako sukaldia labearekin. Egoera onean eta oparitzeko, preziazkoa da. 661 264 405 (arratsaldetan deitu).
- Zaldi bat jartzeko lursail bat alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 616 260 451.
- 3 hilabeteko Seter ingeles arrazako txakur txikiak salgai Aginagan. 943361512 (eguerdiko 12:00etatik aurrera).
- Bi hilabeteko bost txakur-kume gara etxe bila. Gurean ezin dute hainbeste animalia izan eta bestela txakurtegi era- mangaituzte. Mesedez, eraman gaitzazue. Deitu 635 714 030.
- Belarritakoa galdu nuen Santixabel egunean, kaxko inguruan. Balio sentimental handia du, aurkitu baduzu, deitu telefono honetara: 687 406 209.
- Kalezar auzotik txirindula bat desagertu da. 27 zazpi urte ditut, Peugeot marka, kolore zuria, emakumezko modera, palankazko kanbioekin koadro ondoan eta jarlekuan kokka bat dauka egin berria. 675 71 72 67
- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriko. 666539284
- Masajek ematen ditut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun auklia (10 kilotik gorakoa eta ezaten dena) erosiho nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zaitzagan liburutegian, marxoaren 11n. Asko eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazaud: 669645585 / 943365191.
- Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Informatikari naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz auzon zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari liriko. Maketa bat entzungai daukat. 690784113

## HILDAKOAK

**Francisco Camacho Avila**  
Azaroaren 12an hil zen  
Usurbilen



**Zorionak Nahia!** Azaroaren 16an 6 urte polit beteiko dituzte gure etxeko sorgiñak. Muxu pottolo bat famili guztiaren partetik!



**Zorionak Ihintza**  
zure lehen urtebetetzean!  
Muxu handi bat aitaixo eta amaxoren partez

Oharrak, zorion agurrak, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)

## JAIOTZAK

**Hugo Sanchez Sanchez**, urriak 17.  
**Udane Aiestaran Iraeta**, urriak 27.

# EUSKADIREN ALDE

JOSU ERKOREKA

ARANTXA TAPIA



www.eaj-pnv.eu



Sarrereren salmenta



SERVIKUTXA  
943 00 12 00  
www.kutxa.net



## Andoain AZAROKO AGENDA

• **Azaroak 18** ostirala, 22:00h Auditorioan  
"Zarzuela gava"

• **Azaroak 19** larunbata, 20:00h Ekitaldi aretoan  
Iñaki Salvador eta Ainara Ortega "Kantagin jazz"

• **Azaroak 20** igandea, 19:30h Auditorioan  
Argia Dantza Taldea "Axuri Beltza"

• **Azaroak 25** ostirala, 20:30h Auditorioan  
"Andoain Musika Eskolako bandaren kontzertua"

• **Azaroak 26** larunbata, 20:00h Ekitaldi aretoan  
"Garikoitz Mendizabal eta Xabier Zabala"



ANDOAINKO UDALA Diputazioa Nahi Alferria

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org



# BOZKATU

